

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Kaixo gu Malen Ajuria, June Ramirez, Sergi Sarmiento eta Saioa Blanco gara eta edozein motako jesarlekuen berrikuntzan oinarritutako proiektu bat landu dugu.

Gure proiektua eskaintzen duen zerbitzua, jendea edozein motako jesarlekuetan esertzean hotzik edo berorik ez izatea da. Horregatik pertsona bakoitzaren gorputz-tenperaturara egokitzen diren bankuak sortu ditugu. Adibidez, udaletxeek banku hauek kaleetan eta plazetan jartzen badituzte, jendea askoz gusturago irtengo da etxetik herritik edo hiritik buelta bat ematera lagunekin, emazte edo senarrarekin... Jendea gehiago irteten bada, herriko giroa askoz hobea izango da. Eta aldi berean jende gehiago irtetzen bada, herriko zenbait sektore, hala nola tabernak, onuradunak izango dira, bezeroak etxean gelditu beharrean herritik buelta bat ematera animatuko baitira haien gorputzaren tenperaturara egokituko diren bankuetan eseri ahalko direlako hotzik edo berorik izan gabe. Eta era berean, herriko saltoki hauek eserlekuak erosten badituzte, haien negozioetan erabiltzeko, bezeroei eskainiko dieten zerbitzuaren kalitatea edo honen komoditatea hobetu egingo da.



Laburbilduz, gure bankuen bidez jendea gustura egongo da eta herriaren/hiriaren giroa asko hobetuko da bertako saltzaileei mesede eginez.